

Lankidetzaren Kontseilu Sektoriala – Ohiko saioa Consejo Sectorial de Cooperación – Sesión ordinaria

Deialdia egin duena	Donostiako Udala
Convoca	Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Data, tokia eta ordua	2018ko ekainaren 14an / 14 de junio de 2018
Fecha, lugar y hora	Udalbatza Aretoan / Salón de Plenos del Ayuntamiento 16:00etan / A las 16:00 horas

GAI ZERREDA:

ORDEN DEL DÍA:

Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero.	1	Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.
2018ko diru laguntza deialdia	2	Convocatoria de subvenciones 2018
GGKEen Koordinakundearen proposamenaren aurkezpena. 2019ko Aurrekontuen Lan Taldea martxan jartzea.	3	Presentación de la propuesta de la Coordinadora de ONGD. Puesta en marcha del Grupo de Trabajo de Presupuestos 2019.
Larrialdietarako laguntza eta ekintza humanitarioetarako 2018rako partidaren egoeraren berri ematea.	4	Informar sobre la situación de la partida para ayuda de emergencia y acción humanitaria del año 2018.
Herri Partaidetza Zerbitzuaren informazioa:	5	Información de Participación Ciudadana:
<ul style="list-style-type: none"> • 2019rako aurrekontu parte-hartzailearen prozeduraren azalpena. • Kontseiluen ebaluazio prozesua Partaidetza arlotik. 		<ul style="list-style-type: none"> • Presentación del procedimiento presupuestos participativos 2019 • Evaluación de los consejos desde Participación Ciudadana.
Galderak eta zalantzak.	6	Ruegos y preguntas.
Datozen ekitaldiei buruzko informazioa.	7	Información sobre próximas actividades.

BILERAN PARTE HARTU DUTE:

HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA DEL CONSEJO	Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria Concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad cívica, Igualdad y Cooperación
TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK	<ul style="list-style-type: none"> • EH-BILDU • IRABAZI



REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	<ul style="list-style-type: none">• PP• PSE-EE	
ELKARTEAK, HERRITARRAK, GARRANTZI BEREZIA DUTEN GIZARTE TALDEAK ASOCIACIONES, CIUDADANO/AS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL	<ul style="list-style-type: none">• ALBOAN• BAKEA ETA ELKARTASUNA EUSKADI• BAKERAKO LANKIDETZA BATZARREA-ACPP• BRIGADAS INTERNACIONALES DE PAZ-PBI• CALCUTA ONDOAN• CRUZ ROJA• EMAUS• ETIOPIAUTOPIA TIKAL• HAURRALDE FUNDAZIOA• INTERED• INTERMON OXFAM• LANKIDETZARAKO INGENIARITZA (IC-LI)• LUMALTIK• MEDICUS MUNDI GIPIZKOA• MUGARIK GABEKO EKONOMIALARIAK• MUNDUBAT• PROCLADE YANAPAI• PROYDE-PROEGA• SAHARAKO LAGUNEN ELKARTEA• SETEM• SODEPAZ• TAU FUNDAZIOA• UNICEF• UNRWA EUSKADI• EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEA	
ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA EXCUSARON SU ASISTENCIA	<ul style="list-style-type: none">• Lankidetza Ataleko burua• ADSIS• DERANDEIN• MUGARIK GABE	
UDAL TEKNIKARIAK PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL	Kontseiluaren Idazkaritza. Lankidetza teknikaria Secretaría del Consejo. Técnica de Cooperación Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren zerbitziburua Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social Lankidetza teknikaria Técnica de Cooperación	Arantxa Ferreras Imanol Telleria Agurtzane Orthous
PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN	Lankidetzako Kontseilu sektorialeko 29 kide, jarraian adierazten direnez gain: udaleko 3 ordezkari tekniko (2 emakumezko eta gizonezko 1). <ul style="list-style-type: none">• Emakumezkoak / Mujeres = 18• Gizonezkoak / Hombres = 11 <p>29 personas integrantes del Consejo Sectorial de Cooperación, además del personal técnico municipal: 3 personas (2 mujeres y 1 hombre).</p> Lankidetza - Cooperación:	
IDAZKARITZA: SECRETARÍA DEL CONSEJO:	Aiete Jauregia, Aiete pasealekua, 65 943481471 lankidetza@donostia.eus	

SAIOAREN BILAKAERA:
DESARROLLO DE LA SESIÓN:

<p>1.- Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero.</p> <p>Aurreko akta onartu da aldaketarik gabe.</p>	<p>1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.</p> <p>Se aprueba el acta anterior sin ninguna modificación.</p>
<p>2.- 2018ko diru laguntza deialdia</p> <p>Hasiera batean, eskaerak aurkezteko epea otsailaren 27an hasi zen, eta martxoaren 27an bukatu, baina, plataformaren funtzionamenduari lotutako arazo batzuen ondorioz, egoki jo zen epea apirilaren 20 arte luzatzea.</p> <p>Prozesu guztia biltzen duen aplikazio informatiko bat sortzen ari dira, baina zail samarra suertatzen ari da, diru laguntzei lotutako prozesu osoan zehar duten departamentu guztiak parte hartzen dutelako. Hori dela eta, prozedura luzatzen ari da.</p> <p>Akatsak zuzentzeko, hamar eguneko epea zabalduko da, erakunde bakoitzak bere proiektuan egin beharreko zuzenketak egiteko, baina, hori baino lehen, beste epe bat zabalduko da, zuzenketa horiek "zirriborro" moduan egin ahal izateko. Prozesua on line izango da, eta kode bat erabiliko da, proiektuak aurkezteko egin bezala. Hau izango denez proiektuak aldatzeko epe bakarra, alde guztiok berrikusiko dugu behin. Ondo bidez, uztailen izango da.</p>	<p>2.- Convocatoria de subvenciones 2018</p> <p>Inicialmente el plazo de presentación de solicitudes fue del 27 de febrero al 27 de marzo, pero por motivos derivados del funcionamiento de la plataforma se vio conveniente ampliar el plazo hasta el 20 de abril.</p> <p>Se está creando una aplicación informática que recoja todo el proceso y está siendo complicado porque participan en ella todos los departamentos implicados durante todo el proceso de las subvenciones. Es por ello que el procedimiento se está alargando.</p> <p>En cuanto al periodo de subsanaciones, se abrirá un plazo de 10 días para que cada entidad realice las correcciones que cada proyecto requiera, pero se ampliará un plazo previamente para ir realizando esas correcciones en modo "Borrador". El proceso será on line con un código, al igual que la presentación de proyectos. Como este será el único periodo para modificaciones del proyecto, lo revisaremos de una vez todas las partes. Si todo va bien, se prevé que sea en julio.</p>
<p>3.- GGKEen Koordinakundearen proposamenaren aurkezpena. 2019ko Aurrekontuen Lan Taldea martxan jartzea.</p> <p>Aditza eman dutenez, Udalean, 2019ko aurrekontua ekainaren bukaeran prestatzen hasten dira. Horregatik planteatu da 2018ko aurrekontuetako lantaldea berriro lanean jartzea. Erakunde parte-hartzaile guztiak Koordinakundearen barruan daude, eta hark hala eskatuta elkartu dira.</p> <p>Bestalde, 2019ko Aurrekontuetako Lantaldea zabaltzea ere planteatu dute, erakunde berriak edo Koordinakundekoa ez den baten bat sartuta. Hori dela eta, bileran dauden</p>	<p>3.- Presentación de la propuesta de la Coordinadora de ONGD. Puesta en marcha del Grupo de Trabajo de Presupuestos 2019.</p> <p>Se informa que en el Ayuntamiento el presupuesto de 2019 comienza a prepararse a finales del mes de junio. Por eso, se plantea reactivar el grupo de trabajo de los presupuestos 2018. Coincide que las entidades participantes son todas parte de la Coordinadora y se unen a su propuesta.</p> <p>No obstante se plantea abrir la posibilidad de ampliar el GT Presupuestos 2019, con nuevas entidades o alguna que no fuera de la Coordinadora; por lo que se anima a las</p>



erakundeak animatu dituzte parte hartzera.

Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Koordinakundearen ordezkariak gogora ekarri du Eragin Politikoaren Taldeak 2019ko udal aurrekonturako egindako proposamena:

Aurrekontua pixkana-pixkana igotzeko eskatzen diote Udalari, 2019an aurrekontu finkatuaren % 0,53raino iritsi arte. Gaur egungo abiapuntua aurrekontu finkatuaren % 0,36 da, eta, 2019. urterako, % 0,17ko igoera eskatzen dute.

Zuzeneko Lankidetzari ematen zaion portzentajea (% 26,21) gehiegizkoa dela jotzen da.

Antolatzen diren **GEH** ekintzei (Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza) oso balorazio positiboa eman zaie.

Aurrekontuaren igoera norgehiagoka-prozedurak deitzeko baliatzeko eskatu dute.

Interesgarri deritzote larrialdietan ekintza humanitarioei laguntzeko kontu-saila tokiko agenteek kudeatutako beste batzuekin koordinatzeari.

Aurrekontuaren % 10 Euskal Fondorako izango da, kuota eta proiektuen esleipena, planean ezarritakoa betez.

Azaldu dutenez, Zuzeneko Lankidetzarako, gehienez, % 10 zuzentzearen alde daude.

Bestalde, planteatu dute aldi baterako harrera-programak eta errefuxiatuentzako laguntzak Gizarte Ongizate arloak babestu behar dituela.

Azpimarratu dutenez, kirol txartel solidarioa eta antzeko ekimenak oso positiboak dira, baina uste dute irizpideak ezartzean koordinazio handiagoa behar dela. Ez dute egoki jotzen isunak ezartzea nazioarteko elkartasunarekiko loturengatik.

entidades asistentes a participar.

El representante de la Coordinadora de ONGD, comenta la propuesta que desde el grupo de Incidencia Política se había realizado para el presupuesto municipal de 2019:

Se solicita al ayuntamiento un **progresivo incremento del presupuesto** hasta llegar en 2019 al 0,53% del presupuesto consolidado. Partimos en la actualidad del 0,36% del presupuesto consolidado y se solicita un aumento del 0,17% para el año 2019.

Se considera que el porcentaje destinado a **Cooperación Directa** es excesivo, 26,21%.

Se valora de forma muy positiva la actividades que se organizan de **EPTS**.

Se solicita que el aumento del presupuesto se destine a la convocatoria de concurrencia competitiva.

Consideran que sería interesante coordinar la partida de ayuda de emergencia-acción humanitaria con otras agentes de carácter local.

El 10% del presupuesto se va a destinar a Euskal Fondoa, la cuota más la asignación de los proyectos, cumpliéndose lo que se ha establecido en el plan.

Se explica que se aboga por un 10% como máximo destinado a Cooperación Directa.

Plantean que el apoyo de los programas de acogidas temporales y las ayudas a personas refugiadas debe ser apoyados desde el área de Bienestar Social.

Destacan que acciones como la "kirol txartela solidaria" son muy positivas, aunque creen que debería haber más coordinación en cuanto los criterios que se establecen. Sin embargo, no se considera adecuado el establecimiento de Multas con la vinculación con la solidaridad internacional.

4.- Larrialdietarako laguntza eta ekintza humanitarioetarako 2018rako partidaren

4.-Informar sobre la situación de la partida para ayuda de emergencia y acción

egoeraren berri ematea.

2018rako Larrialdietarako Laguntza eta Ekintza Humanitarioetarako partida dagoeneko bukatu dela jakinarazten da (52.338,58€). *Save the Children*: Baztertua, entitateak betebeharrak ez betetzeagatik.

Babestutako proiektuak honakoak dira:

- UNICEF: "Apoyo de emergencia a los niños y niñas afectados por el conflicto en Siria (17.446,19€)

3 proiektuak batera iritsi zirenez, geratzen zen dirua 3en artean banatuko da.

- SODEPAZ: "Contribución a la mejora de la población de los distritos Nablus, Ramallah y Hebrón. Territorios Ocupados Palestinos" (11.630€)
- MUNDUBAT: "Sistemas comunitarios de apoyo psico-social para mujeres y menores en la Franja de Gaza, víctimas de vulneraciones de Derechos Humanos" (11.630€)
- CRUZ ROJA: "Apoyo a la construcción de vivienda para familias afectadas por las inundaciones en Rubavu, Ruanda" (11.630€)

Larrialdietarako laguntza eta ekintza humanitarioetarako Lan Taldea urte bukaerarako bilduko dela erabakitzen da, aurtengo irizpideak eta emandako egoera baloratzeko, eta 2019ra begira behar izango balira irizpideak egokitzeko.

5.- Herri Partaidetza Zerbitzuaren informazioa

2019rako aurrekontu parte-hartzailearen prozeduraren azalpena

Zinegotziak parte-hartze publikoaren prozesua azaldu du. Helburua da herritarrek eta erakundeek esku hartu ahal izatea 2019rako aurrekontu-proiektua definitzeko lanetan. Proposamenak aurkezteko epea, ekainaren 17a arte egongo da irekita. Gero, udan, haien analisi teknikoa egingo da; urriaren hasieran, aukeratutako proposamenak aurkeztuko dira,

humanitaria del año 2018.

Se informa que la partida de 2018 para Acción Humanitaria y de Ayuda de Emergencia (52.338,58€) ya se ha agotado. *Save the Children* presentó un proyecto que tuvo que ser denegado, por no cumplir los requisitos de la entidad.

Los proyectos apoyados son los siguientes:

- UNICEF: "Apoyo de emergencia a los niños y niñas afectados por el conflicto en Siria (17.446,19€)

Estos tres proyectos llegaron a la vez, y se consideró oportuno repartir el dinero que quedaba entre los tres:

- SODEPAZ: "Contribución a la mejora de la población de los distritos Nablus, Ramallah y Hebrón. Territorios Ocupados Palestinos" (11.630€)
- MUNDUBAT: "Sistemas comunitarios de apoyo psico-social para mujeres y menores en la Franja de Gaza, víctimas de vulneraciones de Derechos Humanos" (11.630€)
- CRUZ ROJA: "Apoyo a la construcción de vivienda para familias afectadas por las inundaciones en Rubavu, Ruanda" (11.630€)

Se decide que el **Grupo de Trabajo ayuda de emergencia y acción humanitaria** se reúna hacia finales de años para valorar los criterios y condiciones que se han dado este año, y ajustar los de 2019 si fuera necesario.

5.- Información de Participación Ciudadana:

Presentación del procedimiento presupuestos participativos 2019

La concejala explica el proceso de participación pública destinado a que ciudadanía y entidades puedan intervenir en la definición del proyecto de presupuestos para el 2019. Hasta el 17 de junio estará abierto el plazo para realizar propuestas; después se procederá al análisis técnico de las mismas durante el verano, a primeros de octubre se



eta epe bat irekiko da, botoa emateko.

Azaldu dute zer ezaugarri izan behar dituzten proposamenek eta zer baldintza bete behar dituzten haiek proposatu eta gero bozkatu ahal izango dituztenek (informazio gehiago, [guztion-artean](#) web orrian).

Mugarik Gabeko Ekonomilarien ordezkariak galdetu du ea posible den Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinakundeak 300.000€-ko igoera eskatzea diru-laguntza norgehiagoka-prozedurarako deialdiaren aurrekontuan.

Haurralde Fundazioaren ordezkariak azpimarratu du, herritarrei parte hartzeko eskatzen zaien prozesuetan, garrantzi handia duela itzulketak egitea. Horri lotuta, Emakunderen jarduna jardun ontzat jo du, eta Ingurumenak egindako parte-hartze prozesua, berriz, jardun txartzat. Zinegotziak erantzun dionez, Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesuaren planifikazioan itzulketa kontuan hartu da.

EH Bilduren ordezkariaren esanetan, aurrekontu parte-hartzaileen prozedurak oihartzun txikia izan du, bai eta gardentasun gutxi ere. Kritikatu du hasieran sektorez sektoreko kontseiluei deia egin eta, gero, bertan behera utzi izana.

Irabaziren ordezkariak prozesua, oro har, zalantzan jarri du, eta Herritarren Partaidetzarako Araua berreskuratzeko eskatu, parte-hartze esparrua zein den jakiteko. Kontseiluek aurrekontuak egitean duten garrantzia azpimarratu du.

Zinegotziak argitu duenez, Aurrekontu Parte-hartzaileen ekimena ez da gauza berria Donostian. Adierazi du, baita ere, urte luzez egin dela lan herritarren elkarrekin, haien eskaerei erantzute aldera, besteak beste.

Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinakundearen ordezkariak dioenez, "Aurrekontu Parte-hartzailea"ren izena bera, pedagogikoki, engainagarria da. Haren ustez, parte-hartzaileagoa da kontseilu honek egiten

presentarán las propuestas seleccionadas y se abrirá un plazo para la votación de las misma.

Se explica las características que han de tener las propuestas y requisitos de las personas que las propongan y posteriormente puedan votarlas. (más información en la web [guztion-artean](#))

El representante de Economistas Sin Fronteras pregunta si la Coordinadora de ONGD, podría realizar una propuesta solicitando un aumento presupuestario de 300.000€ en la Convocatoria de concurrencia de subvenciones.

La representante de Haurralde Fundazioa, destaca la importancia de hacer devoluciones en los procesos en los que solicita la participación ciudadana. Destacando como buena práctica en este sentido a Emakunde, y como mala el proceso participativo desarrollado desde Medio Ambiente. La concejala señala que la devolución está contemplada en la planificación del proceso de los Presupuestos Participativos.

La representante de EH-Bildu señala que el procedimiento de presupuestos participativos ha tenido poco eco y ha sido poco transparente. Cuestiona el llamamiento inicial realizado a los consejos sectoriales que posteriormente fue desconvocado.

A su vez la representante de Irabazi, realiza un cuestionamiento general del proceso y solicita recuperar la Norma de Participación Ciudadana, para conocer cuál es el marco de participación. Señala la importancia de los Consejos, también en la realización de los presupuestos.

La concejala aclara que la experiencia de los Presupuestos Participativos no es una iniciativa nueva en Donostia. Señala también que existe una larga trayectoria de trabajo con las asociaciones ciudadanas, dando respuestas a sus demandas.

El representante de la Coordinadora de ONGD, señala que pedagógicamente nos lleva a engaño la denominación "Presupuesto Participativo", considera más participativo los que desde este consejo se viene realizando,

<p>duen lana, udal aurrekontuei egiten dizkien proposamenen bidez.</p> <p>Mundubateko lehendakariak dio ez dela bete Plan Zuzentzailean bertan onartutakoa. Hala, bada, lana betetzeko eta legealdiaren bukaeran 0'7ra iristeko eskatu du; eta hori aurrekontua handitzeko proposamenik egin beharrik gabe; izan ere, horrelako proposamen bat teknikoki baloratu beharko litzateke eta, gero, herri-botazioa egin.</p> <p>Unicefen ordezkariak esan du, prozesuaren alde, 16 urtetik beherakoek ere parte har dezaketela. Ona litzateke parte hartzeko bideak sustatzen jarraitzea horrelako prozesuetan.</p> <p>Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen Koordinakundearen ordezkariak azpimarratu du Lankidetza Kontseilu moduan onartutakoa bete behar dela, bai eta Plan Zuzentzailean bertan jasotakoa ere: aurrekontua handitzea, pixkana-pixkana gero eta handiagoa izateko, aurrekontuaren 0'7raino iritsi arte.</p>	<p>haciendo propuestas al presupuestos municipal.</p> <p>El representante de Mundubat, señala que no se ha cumplido lo aprobado en el propio Plan Director. Solicita cumplir el Plan y llegar al 0,7 al final de la legislatura, sin necesidad de realizar una propuesta de subida presupuestaria que tenga que ser valorada técnicamente y posteriormente sometida a votación popular.</p> <p>La representante de Unicef destaca en favor del proceso, que menores a partir de 16 años también pueden participan. Se debería seguir fomentando los cauces de participación en procesos de este tipo.</p> <p>El representante de la Coordinadora de ONGD insiste en que se cumpla lo acordado como Consejo de Cooperación, y en el propio Plan Director, una subida presupuestaria con el objetivo de realizar una subida progresiva hasta llegar al 0,7 del presupuesto.</p>
<p>Kontseiluen ebaluazio prozesua Partaidetza arlotik:</p> <p>Idazkariak aditzera eman duenez, ekainaren bukaera aldera, bilera bat egingo da sektorez sektoreko kontseiluetan egindako ebaluazioaren emaitzak Idazkaritza-karguak dituzten langile teknikoekin kontrastatzeko. Irailean, ebaluazioaren emaitzak aurkeztuko dira, Batzorde Iraunkorrear edo Osoko Bilkuran.</p>	<p>Evaluación de los consejos desde Participación Ciudadana.</p> <p>La secretaria informa que hacia finales de junio se realizará una reunión para contrastar los resultados de la evaluación realizada en los distintos consejos sectoriales con el personal técnico que ostenta los cargos de secretaría. De cara a septiembre se presentarán los resultados de la evaluación, en la Comisión Permanente o Pleno.</p>
<p>6.- Galderak eta eskaerak.</p> <p>Mugarik Gabeko Ekonomialarien ordezkariak galdetu du nola balioesten den Kontratazio Publiko Etikoa Kontratazio Publikorako Lege berriaren ikuspegitik.</p> <p>Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkartearen ordezkariak galdetu du zer inplikazio izateko asmoa duen Udalak Aquarius itsasontzian dauden pertsonekin.</p> <p>Zinegotziak erantzun dionez, ez diote oraindik gaiari heldu eta, hortaz, ez dago aurreikusita zer egingo den. Erakunde arteko batzorde bat</p>	<p>6.- Ruegos y preguntas</p> <p>El representante de Economistas Sin Fronteras, pregunta como se valora la Contratación Publica Ética con la nueva ley de Contratación Pública.</p> <p>La representante de la Asociación de Amigos y Amigas de la RASD pregunta por la implicación que va a tener el ayuntamiento con las personas del barco Aquarius.</p> <p>La concejala plantea que todavía no se ha abordado el tema y no hay una previsión de lo que se va a realizar. Existe una comisión</p>



<p>dago eta han erabakiko da zer egin garaia datorrenean. Udala batzorde horretako kide bat da.</p>	<p>interinstitucional donde el ayuntamiento participa, y donde se decidirán las acciones a tomar en su momento.</p>
<p>7.- Datozen ekitaldiei buruzko informazioa.</p> <p>Lankidetza ataletik eta, "Ikuspuntua da Koska. Nazioarteko Genero Kazetaritza" zikloaren esparruan, bi hitzaldi antolatu dira San Telmo Museoan.</p> <ul style="list-style-type: none">• 2. hitzaldia: gaur, ekainaren 14a: June Fernández, "Narrazio Kazetaritza Feminista", 19:00.• 3. hitzaldia: uztailaren 4a: Nuria Lopez Torres, "Komunitate transgeneroa", 19:00. <p>Nazioarteko Bake Brigadak eta Mundu bat taldeek argazki erakusketa bat antolatu dute <i>Kaxildan</i>: "Eskubideak defendatzen bizitzea: hogei kontakizun grafiko giza eskubideen defentsan". Ekainaren 18tik uztailaren 6a arte bisitatu ahal izango da.</p> <p>Intermon Oxfamek gonbidapena egin du, ekainaren 17an, Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna dela eta egingo den manifestazioan parte hartzeko. Leloa hauxe izango da: "Maleten gurpil-hotsak, ez dira turistenak. Errefuxiatuak dira". Egun hartan, Aquarius Espainiara iritsiko da.</p> <p>Aditzera eman da hurrengo osoko bilkura irailaren 20an izango dela.</p>	<p>7.- Información sobre próximas actividades.</p> <p>Desde el departamento de Cooperación y en el marco del "Ciclo Cuestión de Perspectiva . Periodismo internacional de género" se han organizado 2 charlas en el Museo San Telmo:</p> <ul style="list-style-type: none">• 2ª charla: hoy 14 de junio: June Fernández, "Periodismo Narrativo Feminista".19:00• 3ª charla: 4 de julio. Nuria Lopez Torres, "La comunidad transgénero" 19:00 <p>Brigadas Internacionales de Paz (PBI) y Mundubat han organizado una <i>exposición fotográfica en Kaxilda</i> "Vivir defendiendo derechos-20 relatos gráficos por la defensa de los derechos humanos" que se podrá visitar desde el 18 de junio al 6 de julio.</p> <p>Intermon Oxfam invita a participar el 17 de junio a una manifestación que con motivo del Día Internacional de las Personas Refugiadas, coincidiendo con la llegada del Aquarius a España y bajo el lema "Ruedas de maletas, no son de turistas, son refugiados".</p> <p>Se informa que el próximo pleno se celebrará el 20 de setiembre.</p>
<p>Beste aztergairik ez dela, 17:25an amaitu dute bilkura.</p>	<p>No habiendo más temas que tratar, finaliza la sesión a las 17:25h</p>



► Lankidetza
Cooperación

Aiete pasealekua, 65 - Tel. 010 - 943481471 - lankidetza@donostia.eus – www.donostia.eus/lankidetza
20009 Donostia / San Sebastián